

**ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA**  
**SOREASU 1. Kulturgunea - 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA**  
CIF G20420816

Lehendakaria : Jabier Lazkano

Idazkaria : Juan Joxe Agirre

Diruzaina : J. Inazio Arrieta

Partaideak : Rafael Rezabal – Iñigo Olarte - Andrex Maiz – Jabier Maiz - Iñigo Arizaga - Igone Elejalde - Aitor Suinaga - Ane Agirre – Julen Etxaniz – Andoni Gurrutxaga

Hartu emanetarako : J. Inazio Arrieta 608 08 70 24 antxieta.arkeologi.taldea@outlook.com

**“ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA“**

**Gipuzkoako ikerketa arkeologikoa garatzeko biltzen garen talde kultural bat gara.**

**Diru afanik gabeko talde kulturala , 1965 urtean Andoni Albizuri “ Katxo “ eta Rafael Rezabal ek sortua izan zen.**

**Gaur eguneko lan taldea 13 partaidekoa da :**

Rafael Rezabal / Jabier Lazkano / Iñigo Olarte / Andrex Maiz / J. Inazio Arrieta / Jabier Maiz / Iñigo Arizaga / Igone Elejalde / Aitor Suinaga / J. Joxe Agirre / Ane Agirre / Julen Etxaniz / Andoni Gurrutxaga

**Arkeologi Prehistorikoaren barruan gure lana ikerketaren 1º fasea da :**

- 1º Gipuzkoako aran ezberdinetan aztarnategi prehistorikoak izan litekeenak bilatzen saiatzen gera.
- 2º Aztarnategi prehistorikoa izan litekeen aurkikuntzaren azaleko miaketa eta azterketa.
- 3º Azaleko azterketa positiboa baldin bada , ikerketa arkeologikoa egiteko baimena eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 4º Aztarnategi arkeologikoan Kata edo Zundaketa egiten da.
- 5º Kata edo Zundaketetan aurkitutako materialak garbitu , ikertu eta identifikatu egiten dira.
- 6º Aztarnategiaren dokumentazio osoa : Planoak , mapak, lekuko koordinadak , materialaren siglaketa, inbentarioa eta abar.
- 7º Proiektu hauen zuzendari teknikoei eramatan zaizkio materialak , lehenengo ikerketak egin ditzaten.
- 8º Ikerketaren emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu eta aurkitutako material guztiak Gordailu zentroan entregatzen dira.

**Taldearen aurkikuntza garrantzitsuenak :**

**EKAIN** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Deba / Zestoa

**DANBOLINZULO** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa

**ERLAITZ** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa / Deba

**ASTUIGAINA** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa

**SUSTRAIXA** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Lastur – Deba

**AGARRE** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin eta Arte-Pieza Higikorrek** – Mendaro

**AIXA** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Itziar – Deba

**EZKUZTA** – Goi Paleolito eta Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia eta **Arte-Pieza Higikorrek** – Azpeitia

**IRIKAITZ** – Goi Paleolitoko eta Behe Paleolitoko Aire Libreko aztarnategia – Zestoa

**ARNAILETA** – Behe Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Errezil

**AMALDA-III** – Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Zestoa

**URKULU** – Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Lastur - Deba

**ERRAILLA** – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Aizarna – Zestoa

**Gipuzkoako Foru Aldundia, Azpeitia ta Zestoa ko Udalak eta Kutxa Fundazioaren** artean betetzen dituzte taldearen diru beharrak.

SOREASU 1. Kultur gunean kokatzen da taldearen “ Lan Gela “ bulego eta laborategiko lanak bertan egiten direlarik.  
Gela hau Azpeitiko Udalak egokitutakoa dugu.

Asteazkenetan biltzen gara bulegoko langintzarako SOREASU Kultur guneko gure gelan . ( 21:00 tik 23:00 tara )  
Gure langintzan arduratua dagoen edozein etorri liteke.